

Prentsa oharra

Nota de prensa



Udalak komunikazio elektronikoa bultzatuko du kolektibo ezberdinekiko harremanetan

Administrazio Elektronikoa buruzko Erregelamenduan egindako aldaketarekin, Udalaren enplegu publikoak lortzeko prozedura arindu nahi da.

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Donostiako Udalaren Administrazio Elektronikoa buruzko Erregelamenduari 28. artikulua aldatzea, bere araudia egungo errealitateara egokitzeko eta bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jarri beharko diren kolektiboak zehazteko. Hauen artean, hautaketa prozesuetan parte hartzen duten pertsonak daude.

Honako hauek dira, zehazki, araudi berriak Udalarekin harreman elektronikoa izateko eskubidea eta betebeharra dutenak: pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko erakundeak; nahitaez elkargokide izatea eskatzen duen lanbide-jarduera egiten dutenak; Administrazioarekin harreman elektronikoa izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak, eta administrazio publikoetako langileak, baldintza hori dela-eta haiekin egiten dituzten izapide eta jarduketarako.

Udalarekin elektronikoki harremanak izateko betebeharra jarduera ekonomikoak edo profesionalak egiten dituzten pertsona fisikoetara ere hedatzen da. Hala nola, banakako enpresariak edo autonomoak.

Goranzko joera hautaketa prozesuetan

Besteak beste, udaleko enplegatu izateko prozedura arindu nahi du neurriak, eta, horrela, hautagaiei gaitasun tekniko hori aurreikusten zaien deialdietan harreman elektronikoa erraztu.

Izan ere, hautaketa-prozesuen azken deialdietan, eta bide elektronikoa aukera bat izan arren, pertsonen % 90ak baino gehiagok telematikoki egin dute eskaera. Beraz, onartutako neurriak finkatu egiten du berez gertatzen ari zen joera.

Adin txikikoen babesgabetasunaren prebentzio goiztiarra

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Manteo Institutoa Adin Txikikoen Babesgabetasuna Prebenitzeko Esku-Hartze Goiztiarreko zerbitzuetan sartzea. Halaber, haurtxokoetan eta gaztelekuetan arlo horretan egiten den lana indartzea onartu da.

Neurri horrekin esan daiteke Donostiako ikastetxeen % 98a Adin Txikikoen Babesgabetasuna Prebenitzeko Esku-hartze Goiztiarreko Programaren barruan dagoela.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Material hidraulikoaren hornikuntza

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu ditu uren ustiapen eta saneamendu zerbitzurako material hidraulikoa (hodiak, balbulak, erregistro tapak, hustubideak, sute ahoak eta ur harguneak), eskuratzeko hornidura xede duen kontratazio espedienteak eta kontratua arautuko duten administrazio-klausula zehatzen eta preskripzio teknikoen agiria ere.

Urteko gehienezko aurrekontua 302.500 eurokoa da, eta hasierako iraupena urtebetekoa

Gabonak Zuretzat 2022-2023

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu ditu hiriko Gabonak Zuretzat 2022-23 programa barruan, Gabonetarako ekintza egitarau berezia antolatzen duten elkarteentzako diru laguntzen oinarri arautzaileak, bai eta deialdia bera ere.

Aurrekontua 5.200 eurokoa da.

Donostian, 2022ko irailaren 20an